




Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

Erik Nielsen
Zuzendari Titularra



ZURE ORKESTRA GARA ★ Denboraldia | Temporada ★ SOMOS TU ORQUESTA

20
21





Bilbao Orkestra
Sinfonikoa





BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA Denboraldi Sinfonikoa 2020-2021

BEETHOVENEN HALABEHARRA

Pentsa ezazu zer litzatekeen familia egoera honetan egotea: zure aita, alkoholikoa eta talentu mugatukoa, obsesionatuta dago zu haur prodijioa izan zaitez. Eman dezagun, gainera, 17 urterekin ama galtzen duzula, eta okerrera egiten duela aitaren mendekotasunak, hainbeste, non espetxeratu egiten baitute. Zure ardurapean hartu beharrean zaude, adin horrekin, zure bi anaia gazteagoak. Arazo ekonomikoek itota igarotzen duzu bizitza ia osoa, baina horrek ez dizu eragozten anaietako bat hil ondoren haren semearen tutoretza zure gain hartzea eta iloba aurrera ateratzeko eginahal guztiak egitea. Maitasunean ez duzu arrakasta handirik, eta, osasunari dagokionez, hesteetako arazo larriak dituzu, besteak beste. Hori nahikoa ez, eta, zure ibilbidea eta ospea Europa osora zabaltzen hasten den unean, musikari bati gerta dakioken ezbeharrik okerrean gertatzen zaizu: gorreria.

2020. urte honetan, zeinetan aurrez aurre agertu baitzaizkigu bizitzari, heriotzari eta gaixotasunari buruzko funtsezko auziak, zinez paradigmaticoa gertatzen da **Beethovenen** bizi eredu. Batek daki ez ote duen patuak (berez baita beethovendar kontzeptu petoa) berariaz bilatu gaur egun bizi dugun garai nahasi hau haren 250. urteurrenarekin uztartzea, guztioi erakusteko **nola lor daitezkeen gauza benetan ikaragarriak bizitza zailtasunez betea izanik ere.**

Erik Nielsen gure zuzendari titularrari metafora maileguan harturik, musikagileak zuhaitzak balira, sekua baten modura agertuko litzateke Beethoven musika basoaren erdian: iraunkor, sendo eta paregabe.

Zorionak Beethoven!

Beethoven izango da gure denboraldiaren lehen herenaren protagonista. Tarte horretan, haren musika ospatuko dugu, 6 kontzertuko ziklo baten bidez, bertan bildurik haren *1., 4., 5., 6. eta 8. sinfoniak, biolinerako kontzertua, "Enperadorea" pianorako 5. kontzertua*, eta, amaitzeko, Gabonetako egitarauan, *Biolinerako erromantza eta Piano, koru eta orkestrarako fantasia*, Bilboko Koraleko ahotsekin. Zikloan, **Erik Nielsen** zuzendari titularraren batuta ez ezik, gure artean izango ditugu **Lars Vogt, Javier Perianes, Pablo González** eta **Clara-Jumi Kang** Beethovenen interpretatzaile itzaltsuak ere.

Orkestra akordeoi baten modura moldatuz

Jabetzen gara, jakina, hurrengo ikasturtean handia izango dela ziurgabetasuna. Horregatik, era berezian antolatu dugu gure egitaraua: orkestraren osaera unean-unean musikarien artean utzi beharreko distantziari buruzko arauetara egokitzeko aukera ematen duten obrak bilduko ditugu. Egoerak horretarako aukera emanez gero, handitu egingo dugu taldea; eta, aldiz, segurtasun neurriek indarrean jarraitzen duten bitartean, indar aski izango dugu musikaririk handienen lanak eskaintzeko: **Mozart, Brahms, Tchaikovsky, Dvorák** nahiz **Carl Nielsen**enak, esaterako.

Goizeko saio gehigarri bat

Deseskalatze arauak ezarritako aforo mugak direla-eta, murriztu beharrean gaude publikoarentzat salgai jartzeko sarreren kopurua.

Egoera horri nolabait aurre egiteko, saiakera bat egin nahi dugu aspaldi aztertzen ari ginen ekimen bat gauzatzeko: hirugarren kontzertua eskaintzea, saio gehigarri bat, ostegun goizez. Saio horren bidez, ordutegi berri batean programatu ahal izango ditugu gure kontzertuak, publikoarentzat interesgarria izango delakoan.

Hala, denboraldiko lehen hiru egitarauetan, aukera izango da ostegun goizeko saiorako sarrerak erosteko (12:00etan izango dira goizeko saio horiek).

Hiru egitarau horiek amaitutakoan, emaitzak aztertuko ditugu, eta horren arabera erabakiko dugu denboraldi osoan esperientziari eutsi edo ez.

Astor Piazzollaren mendeurrena

2021eko martxoan beteko da **Astor Piazzollaren** jaiotzaren mendeurrena. Jatorri herrikoia eta hizkuntza klasikoa musikan ezin hobeto uztartzeko trebetasun aparta erakutsi zuen Piazzollak. XX. mendeko tangoaren berritzaile handitzat hartua da, eta mundu osoko entzuleekin ondoen konektatu duen musikarietako bat izateko ospea du. **Claudio Constantini** limatar bandoneoi-jotzaileak *Aconcagua*, *bandoneoi eta orkestrarako* eskainiko du; egitarau honetara bildu dira, halaber, amerikar musikaren beste berritzaile handietako bat, **Copland**, **Villa-Lobos**, eta **Gabriela Lena Frank** musikagilearen ahots berria. Tacomako Sinfonikoaren zuzendari titular **Sarah Ioannidesen** zuzendaritzapean arituko dira guztiak ere. **Piazzollaren** omenaldiak, bestalde, jarraipena izango du ganbera musikako denboraldian.

Zapata eta orkestrarako kontzertua, edo nola barre egin gure buruari

Hainbeste kezka eta gorabehera bizi ondoren, handia izango da aurreko denboraldietako ohitura bat berreskuratu ahal izatea: Inauterietako egitaraua. Eta, urteko sasoi hori transgresio eta gehiegikeria garaia izanik, ahalik eta egitarau dibertigarri, bihurri eta umoretsuenaz ospatuko dugu. Kontzertu bat –“showtzertua” esan liteke–, **José Manuel**



Zapatak aurkeztua, **Paco Mir** zuzendari eszenikoaren bermearekin, zeinetan astinduko baititu tenor eta komikoak musika klasikoko klaxerik errotuenetako batzuk, umorearen bidez. **Danny Kaye** antzezle ospetsu eta musikariak 1981ean New Yorkeko Filarmonikoaren aurrean eskainitako ikuskizun historikoan inspiraturiko lana da, eta bata bestearen atzetik antzeztuko ditu **Rossini, Beethoven, Verdi, Mozart** eta abarren musikari buruzko gagak, han parodiatutako jokabideetan bere burua maiz ezagutuko duen publiko baten aurrean. Ez luke zertan gogaitu norberaren buruaz barre egitearen arte jaso aintzen badakien inor.

JoAnn Fallettaren itzulera, gonbidatu bikainez inguraturik

Gure zuzendari titular **Erik Nielsen**ek gidatuko dituen 8 egitarauetz gainera, azken urteetan orkestrarekin lotura berezia izan duten hainbat izen ageri dira zuzendarien zerrendan, hala nola: **Giancarlo Guerrero, Brahmsen** lehena ardatz duen egitarau indartsu batean; eta dagoeneko aipatutako **Pablo González** eta **Lars Vogt**, azken hori bakarlari eta zuzendari arituko dela, txandaka. Gonbidapena errepikatzen dutenen artean, **Johannes Debusez** gainera, aipatzekoa da **JoAnn Falletta** zuzendaria, Estatu Batuetako izar handia, 90eko hamarkadan maiz bisitan etorri zitzaiguna: *Ginasteraren Biazio kontzertanteak* proposamen ezohiko eta bertuosistikoak biltzen dituen egitarau batean topo egingo dugu berarekin, oraingoan. Garrantzizko zenbait debut ere ikusiko ditugu denboraldian orkestrarekin. Guretzat bereziki kutuna, **Unai Urretxorena**: Arrasateko musikaria ibilbide bikaina egiten ari da, Hego Korea egoitza nagusi duela. Debuta egingo du, halaber, **Sarah Ioannides** amerikar-zipretar dagoeneko aipatuak, eta **David Grimal** biolinista eta zuzendariak, zeinak parte hartuko baitu gure orkestrari erronka joko dion egitarau batean: kontzertinoaren eserlekutik zuzenduko du zuzendariak Brahmsen *laugarren sinfonia*.

Bakarlari nabarmenen artean, Garrick Ohlsson eta Javier Perianes

Bakarlarien sailean, pianistak nabarmenduko dira aurten ere, ibilbide oparo eta bikaina duen **Garrick Ohlsson** estatubatuarra buru dutela. Bereziki betegarria izan da guretzat bizkor aurkitu ahal izatea **Javier Perianes**en kontzertuentzako kokagunea, pandemia dela-eta aurtengo ekainean emanaldia bertan behera utzi behar izan ondoren, ezinbestean. Koadroa osatuz, hortxe izango dira **Kozhukhin** sendoa; **Daumants Liepins** gaztea, **María Canals** lehiaketaren irabazlea; eta **Alfonso Gómez** gasteiztarra. Biolinisten sailean, **Fumiaki Miura** izango dugu, Eguzki atera berriaren herrialdeko idoloa, eta, harekin batera, **David Grimal** –lehen aipatua– eta **Clara-Jumi Kang** dotorea. Horrez gain, gura itzuliko da **Alban Gerhardt** biolontxelo-jotzailea, Barberren kontzertu ezohikoarekin. Eta badira beste hiru presentzia biziki harro sentiarazten gaituztenak: **Freyr Sigurjonsson** txirula bakarlaria, **Ásgeirsson** islandiarren kontzertua interpretatzen –hain zuzen, berari eskainia–; **Laura Delgado** bigarren biolinetako bakarlaria, *Beethovenen Erromantza* ederrarekin, eta **Vicent Zaragoza** perkusioko bakarlaria, zeinak osatuko baitu bikotea **Conrado Moya** perkusionista ospetsuarekin, Dormanen kontzertuan.

Ahotsen sailean, ahots hauek nabarmenduko dira **Erik Nielsen**ek bereziki gogoko duen erreperitorio batean: **Anne Schwanewilms** kantuarren dama handia, **Wagnerren Wesendonck Lieder** ederrekin, eta **Elizabeth Reiter, Händelen** sopranorako eszena handiei eskainitako gure egitarau barrokoan (BOSbaroque).

Hitzaurre Bi, Ramon Lazkano

Denboraldiko une gorenetakoa **Ramon Lazkanoren Hitzaurre Bi** piano eta orkestrarako kontzertuaren interpretazioa izango da. Karios disko-etxearentzat obra grabatu genueneko konpainia berean, gainera: **Alfonso Gómez** pianistaren konpainian. Esan beharra dago poz handiak ekarri dizkigula grabazio hark; besteak beste, musika garaikidearen saileko Grand Prix du Disque de la Académie Charles Cros saria, berriki.

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

Denboraldi Sinfonikoa 2020-2021

① Kontzertu guztiak 19:30etan izango dira*

📍 Palacio Euskalduna Jauregia
(Bilbao). Auditórium

Programazio hau alda liteke. Baldintza orokorrak ikusteko www.bilbaorkestra.eus

 Hastapeneko abonua
Zorionak Beethoven!



01 urriak 01-02 Hasierako kontzertua

R. Wagner / R. Kornfeil:

Wesendonck lieder

L. van Beethoven: 5. sinfonia do
minorrean, op. 67

Anne Schwanewilms, sopranoa

Erik Nielsen, zuzendaria



02 urriak 08-09

W.A. Mozart: *Trauermusik*

Jón Ásgeirsson: Kontzertua txirula eta
orkestrarako

W.A. Mozart: 41. sinfonia Do maiorrean,
"Jupiter"

Freyr Sigurjonsson, txirula

Erik Nielsen, zuzendaria



03

azaroak 05-06

L. van Beethoven: *Kontzertua Re maiorrean biolin eta orkestrarako, op. 61*

L. van Beethoven: *4. sinfonia Mi bemol maiorrean, op. 60*

Clara-Jumi Kang, biolina

Pablo González, zuzendaria



04

azaroak 12-13

Ch. Ives: *3. sinfonia "The camp meeting"*

L. van Beethoven: *5. kontzertua piano eta orkestrarako, op. 73 "Enperadorea"*

Javier Perianes, pianoa

Erik Nielsen, zuzendaria



05

azaroak 19-20

L. van Beethoven: *Etxearen kontsakrazioa, obertura*

R. Lazkano: *Hitzaurre Bi, piano eta orkestrarako*

L. van Beethoven: *8. sinfonia Fa maiorrean, op. 93*

Alfonso Gómez, pianoa

Erik Nielsen, zuzendaria



06

abenduak 03-04

W.A. Mozart: 21. kontzertua piano eta orkestrarako Do maiorrean, K. 467

L. van Beethoven: 6. sinfonia Fa maiorrean, op. 68

Lars Vogt, pianoa eta zuzendaria



07

abenduak 17-18

Gabonetako Kontzertua

L. van Beethoven: 1. sinfonia Do maiorrean, op. 21

L. van Beethoven: 2. erromantza biolin eta orkestrarako Fa minorrean

L. van Beethoven: Fantasia Do minorrean, piano, abesbatza eta orkestrarako

L. van Beethoven: Aleluia, Kristo olibondoen mendian oratoriokoa

Laura Delgado, biolina

Bilboko Koral Elkartea (Enrique Azurza, zuzendaria)

Erik Nielsen, pianoa eta zuzendaria



08

otsailak 04-05

R. Wagner: Sigfridoren idilioa

J. Brahms: 2. kontzertua piano eta orkestrarako Si bemol maiorrean, op. 83

Garrick Ohlsson, pianoa

Erik Nielsen, zuzendaria



09 otsailak 11-12

Inauteria

Zapata eta Orkestrarako kontzertua
Rossini, Strauss jr., Verdi, Padilla,
Tchaikovsky, Schumann, Brahms eta
Beethovenen obrak

Paco Mir, zuzendaritza artistikoa
 José Manuel Zapata, zuzendaria



10 otsailak 18-19

B. Bartók: 3. kontzertua piano eta
 orkestrarako

P.I Tchaikovskysy: 4. sinfonia fa minorrean,
 op. 36

Denis Kozhukhin, pianoa
 Erik Nielsen, zuzendaria



11 martxoak 18-19

F. Mendelssohn: Kontzertua biolin eta
 orkestrarako mi minorrean, op. 64

C. Nielsen: 5. sinfonia, op. 50

Fumiaki Miura, biolina
 Johannes Debus, zuzendaria



12 martxoak 25-26 Piazzollaren 100 urte

A. Copland: *Appalachian Spring*

A. Piazzolla: *Aconcagua*, kontzertua bandoneon eta orkestrarako

Gabriela Lena Frank: *Concertino cuscotarra*

H. Villa-Lobos: *Sinfonietta n. 1 "A la memoria de Mozart"*

Claudio Constantini, bandoneona

Sarah Ioannides, zuzendaria



13 apirilak 22-23

J. Brahms: *Bariazioak Haydnen gai baten gainean*

F. Liszt: *1. kontzertua piano eta orkestrarako*

A. Ginastera: *Bariazio kontzertanteak op. 23*

Daumants Liepins, pianoa

JoAnn Falletta, zuzendaria

babeslea



14 apirilak 29-30

A. Dorman: *Spices, Perfumes, Toxins!* perkusio bikoterako kontzertua

A. Dvorák: *8. sinfonia Sol maiorrean, op. 88*

Conrado Moya y Vicent Zaragoza, perkusioa

Unai Urretxo, zuzendaria



15 maiatzak 06-07

S. Barber: *Kontzertua biolontxelo eta orkestrarako, op. 22 K*

J. Brahms: *1. sinfonia do minorrean, op. 68*

Alban Gerhardt, biolontxelo

Giancarlo Guerrero, zuzendaria



16 maiatzak 20-21
BOSbaroque

Händel, *opera eta oratorioko arien hautaketa sopranorako*

Elizabeth Reiter, sopranoa

Erik Nielsen, zuzendaria



17 ekainak 03-04
Amaierako kontzertua

P.I. Tchaikovsky: *Kontzertua biolin eta orkestrarako Re maiorrean, op. 35*

J. Brahms: *4. sinfonia mi minorrean, op. 98*

David Grimal, biolina eta zuzendaria


ABONU
TEMATIKOA

ZORIONAK BEETHOVEN! (4 KONTZERTU)

Beethoven izango da gure denboraldiaren lehen herenaren protagonista. Tarte horretan, haren musika ospatuko dugu, 6 kontzertuko ziklo baten bidez, bertan bildurik haren *1., 4., 5., 6. eta 8. sinfoniak*, *biolinerako kontzertua*, *"Enperadorea" pianorako 5. kontzertua*, eta, amaitzeko, Gabonetako egitarauan, *Biolinerako erromantza eta Piano, koru eta orkestrarako fantasia*, Bilboko Koraleko ahotsekin. Zikloan, **Erik Nielsen** zuzendari titularraren batuta ez ezik, gure artean izango ditugu **Lars Vogt, Javier Perianes, Pablo González** eta **Clara-Jumi Kang** Beethovenen interpretatzaile itzaltsuak ere.

Musikagile alemanari eskainitako kontzertu sail honetatik, 4 egitarau sinfoniko aukeratu ditugu denboraldi honetako abonua tematikoa osatzeko.

Denboraldi sinfonikoa: 1.a, 3.a, 4.a eta 6.a





Pablo González



Garrick Ohlsson



Sarah Ioannides



Anne Schwanewilms



Johannes Debus



Claudio Constantini



gure DENBORALDIKO ZENBAIT **PROTAGONISTA**



Ganberako Denboraldia 2020-2021

Beethoven, 20th Century tango eta Bakarlari handiak

Ganbera musikako gure denboraldian, **Beethovenen** 250. urteurrena ere ospatuko dugu, haren katalogo zirrargarriko obra adierazgarrienetako batzuekin: hain zuzen ere, haren obra ikur zenbait aurkeztuko dituzte gure musikari taldeek, hala nola **135. kuartettoa, Haize sestettoa, Hari kintettoa** edo *"Ghost" trioa pianoarekin*. Gozamenaz entzungo ditugu, halaber, **Rebecca Clarke, Fanny Mendelssohn, Madeleine Dring, Germanine Tailleferre** eta **Amy Beach** musikagile handien doinuak.

Gure denboraldi sinfonikora gonbidatutako bakarlari batzuekin dugun lotura lau aldiz agertuko da. Horien artean, nabarmentzekoa izango da **Javier Perianesen** "Oso pertsonala" errezitaldia; hain zuzen ere, Huelvako pianistak egitarau sorpresa bat eskainiko du, berak aurkeztuz piezetako bakoitza eta bere bizipenekin lotura eginez. **Claudio Constantini** bandoneoi-jotzaileak, bestalde, azalera aterako du tangoak, besteak beste, **Stravinsky, Ravel** eta **Satie** musikagile klasikoetan lanetan izan duen eragina, eta **Piazzolla** gogoratuko du, haren mendeurrenaren ospakizunean. **Alban Gerhardt** biolontxelo-jotzaileak boskotea osatuko du gure orkestrako musikagileekin. Eta, azkenik, **Conrado Moya** perkusionista BOSen perkusio sail osoarekin batera arituko da.

1 Kontzertu guztiak 19:30etan izango dira

Palacio Euskalduna Jauregia (Bilbo). 08 Aretoa
Programazio hau alda liteke. Baldintza orokorrak ikusteko www.bilbaorkestra.eus



01 azaroak 09 Hasierako kontzertua Bakarlari handiak errezitaldian

Javier Perianes, oso pertsonala



02 azaroak 16 Zorionak Beethoven!

Rebecca Clarke: *Bi mugimendu hari laukoterako*
Fanny Mendelssohn: *Hari laukotea op. 13*

BOSeko hari laukotea

L. van Beethoven: *Kuartettoa Fa maiorrean, op. 135*

BOSeko hari laukotea



03 abenduak 14 Zorionak Beethoven!

B. Martinu: *La revue de cuisine, ballet pour six instruments*

BOSeko ganbera taldea

L. van Beethoven: *Sestetoa 2 tronpa eta hari laukoterako*

BOSeko hari eta tronpa seikotea

L. van Beethoven: *Sestetoa harirako Mi bemol maiorrean op. 71*

BOSeko haize seikotea



04 urtarrilak 25

Harald Genzmer: *Trio txirula, biola eta harparako*

J.M. Damase: *Trio txirula, biola eta harparako*

BOSeko hirukotea

Madeleine Dring: *Trio txirula, oboe eta pianorako*

BOSeko hirukotea

Jean Cras: *Kinteto txirula, harpa, biolin, biola eta biolontxelorako*

Boseko boskotea



05 otsailak 08 Batailak eta heroiak

A. Corelli: *4. concerto Grossoa op.6 Re maiorrean*

H.I. Franz von Biber: *Battalia*

A. Vivaldi: *Kontzertua Do maiorrean RV 114*

J.Ph. Rameau: *Dardanus, Tragedie en musique operako suite instrumentala*

BOSeko talde barrokoa
(Zuzendaria-concertinoa Pedro Gandia)



06 martxoak 15

Germaine Tailleferre: *Hari kuartettoa 3 mugimendutan*

Amy Beach: *Gaia eta bariozioak op. 80 txirula eta hari laukoterako*

BOSeko laukotea

R. Schumann: *Kuartettoa pianoarekin Mi bemol maiorrean op. 47*

BOSeko laukotea



07 martxoak 29

Bakarlari handiak errezitaldian Piazzollaren 100 urte

Tangoa ezagutzen Ravel, Stravinsky, Satie... Gardel eta Piazzollaren musikan

Claudio Constantini, bandoneona
Louiza Hamadi, pianoa



08 maiatzak 03

Bakarlari handiak BOSekin Perkusioko mundu bat

Russel Peck: *Lift Off (EE.UU)*

Jarrold Cagwin: *Always Never Again (INDIA)*

E. Sejourné: *Pachisa (HEGO AMERIKA)*
(estreinaldia Espainian)

J.S. Bach: *Chaconne (EUROPA)*

J. Vicent: *Realese (AFRIKA)*

Minoru Miki: *Marimba Spiritual (JAPONIA)*

Conrado Moya eta BOSeko perkusio taldea



09

maiatzak 10

**Bakarlari handiak errezitaldian
Zorionak Beethoven!**

W. A. Mozart: 3. hari kintettoa Do maiorrean,
K 515

L. van Beethoven: Kintettoa harirako do
minorrean op. 104

Alban Gerhardt eta BOseko laukotea



10

maiatzak 24

Zorionak Beethoven!

F. Schubert: Nokturnoa Mi bemol maiorrean
D. 897

L. van Beethoven: Trioa pianoarekin Re
maiorrean op. 70 "Ghost"

BOseko hirukotea

A. Schnittke: 3. kuartettoa

BOseko hari laukotea

Abonu mota 2020-2021

Denboraldi osorako abonua (17 kontzertu)

Denboraldi osorako abonua aukera ematen du deskontu handia izateko (txartel solteekin alderatuta), BOSe denboraldian eskaintzen dituen 17 kontzertu sinfonikoez gozatzeko.

Abonu tematikoa. Zorionak Beethoven! (4 kontzertu)

Egitarauak: 1.a, 3.a, 4.a eta 6.a

Beethoven izango da gure denboraldiaren lehen herenaren protagonista. Tarte horretan, haren musika ospatuko dugu, 6 kontzertuko ziklo baten bidez, bertan bildurik haren 1., 4., 5., 6. eta 8. sinfoniak, biolinerako kontzertua, "Enperadorea" pianorako 5. kontzertua, eta, amaitzeko, Gabonetako egitarauan, Biolinerako erromantza eta Piano, koru eta orkestrarako fantasia, Bilboko Koraleko ahotsekin. Zikloan, Erik Nielsen zuzendari titularraren batuta ez ezik, gure artean izango ditugu Lars Vogt, Javier Perianes, Pablo González eta Clara-Jumi Kang Beethovenen interpretatzaile itzaltsuak ere.

Musikagile alemanari eskainitako kontzertu sail honetatik, 4 egitarau sinfoniko aukeratu ditugu denboraldi honetako abonua tematikoa osatzeko.

Hastapeneko abonua (6 kontzertu)

Egitarauak: 2.a, 4.a, 8.a, 10.a, 12.a eta 15.a

Hastapeneko abonua jatorrizko filosofiarekin jarraitzen du: zaleek nahiz zaletu nahi dutenek gozatzeko moduko sei kontzertu ikusteko aukera izatea. Era askotako kontzertuak dira, baina berehalako gozamenarekin emateko baterako helburua dute, baita musika sinfonikoaren munduan sartzekoa ere.

Abonua nahierara - 6 (6 kontzertu)

Hain arrakastatsua izan den nahierako abonua horrek aukera ematen die sei kontzertu hautatzeko abonua labur propioa prestatu nahi duten zaleei.

Abonua nahierara - 9 (9 kontzertu)

Abonua mota honekin, entzun nahi dituzun kontzertuak aukera ditzakezu. Bederatzi kontzertuko sorta bat eskuratu behar duzu.

Denboraldi Sinfonikoa • ABONUAK

Abonu Arrunta

Abonu mota	Kontzertuak	A+	A	B	B hegala	C	C hegala
Abonu Osoa	17	355,97 €	327,47 €	258,97 €	233,77 €	131,07 €	118,67 €
Hastapeneko Abonua	6	-	132,26 €	99,76 €	90,06 €	75,56 €	68,26 €
Abonua Nahierara - 6	6	-	138,96 €	104,86 €	94,56 €	79,11 €	71,46 €
Abonua Nahierara - 9	9	-	207,09 €	157,29 €	141,89 €	118,69 €	107,19 €
Abonu tematiko	4	-	100,04 €	69,64 €	62,84 €	53,14 €	47,99 €

Gazteak Abonua (hasta 30 años)

Abonu mota	Kontzertuak	A+	A	B	B hegala	C	C hegala
Abonu Osoa	17	125,97 €	125,97 €	90,47 €	82,12 €	79,47 €	72,22 €
Hastapeneko Abonua	6	-	46,96 €	34,96 €	31,71 €	25,46 €	23,16 €
Abonua Nahierara - 6	6	-	49,46 €	35,96 €	32,61 €	26,96 €	24,51 €
Abonua Nahierara - 9	9	-	74,19 €	53,94 €	48,89 €	40,44 €	36,79 €
Abonu tematiko	4	-	33,14 €	24,64 €	22,34 €	18,64 €	16,94 €

Denboraldi Sinfonikoa • SARRERAK

Abonu mota	A+	A	B	B hegala	C	C hegala
Sarrera arrunta	31,63 €	28,53 €	20,13 €	18,23 €	15,43 €	13,98 €
Gaztea sarrera (hasta 30 años)	9,93 €	9,93 €	7,53 €	6,83 €	5,73 €	5,23 €
Azken ordukua	16,23 €	14,68 €	10,48 €	9,53 €	8,13 €	7,38 €
CrediBOS	-	140,98 €	99,98 €	-	76,98 €	-

Ganbera Denboraldia

	Prezio arrunta		Precio Gaztea	
	Denboraldi Sinfonikoko abonatuak	Denboraldi Sinfonikoko abonatuak ez direnak	Denboraldi Sinfonikoko abonatuak	Denboraldi Sinfonikoko abonatuak ez direnak
Abonua	45,60 €	74,10 €	21,20 €	39,10 €
Sarrera	10,83 €	10,83 €	5,83 €	5,83 €

Prezio bereziak 2020-2021

Gazteentzako abonua eta sarrerak

30 urtera arteko gazteek deskontu handiak dituzten prezio berezietan erosi ahal dituzte abonua eta sarrerak (ikusita abonuen eta sarreren taula).

Azken orduko sarrerak

Gure abonatuak eskaintzen diegun abantaila bat da, nahikoa denborarekin abisatuz gero, denboraldiko kontzertura joateko eguna aldatzeko aukera izatea. Horrek esan nahi du, egitarau bakoitzean, osteguneko eserleku batzuk okupatu gabe egoten direla, abonatuak ostirala aukeratu dutelako, eta alderantziz.

Sarrerak azken orduan erosi daitezke, kontzertuaren egunean bertan, 18:30 eta 19:25 bitartean, eta deskontu handia izango dute, % 50 ingurukoa. Kontzertura joan nahi duen orok erosi ahal izango ditu sarrera horiek.

Hauek dira eskaintza honen baldintzak

- Sarrera horiei ez zaie beste deskonturik aplikatzen.
- Ezin da eserlekurik aukeratu; eremua baino ezin da aukeratu.
- Elkarren ondoan bi butaka ba ote dauden kontsultatu ahal izango da

Prezio bereziak langabe eta familia ugariarentzat

Talde hauei dagokienez, prezio berezia sortu dugu C Guneko sarrera solteetarako. Sarrera horiek %50eko deskontua izango dute euren prezio ofizialarekiko.

Taldeentzako deskontuak

Taldeentzako deskontu mota bi eskaintzen ditugu. Bata, %20koa, 7 eta 14 leku bitartean okupatzen dituzten taldeentzat; eta beste bat, %25ekoa, 15 lagun edo gehiagorik osatutako taldeentzat.

CrediBOS

Aldez aurretik txartelak erosteko sistema ondo finkatu da, BOSek kontzertuen ikus-entzuleei txartelak erosteko ematen dizkien aukeren artean. Denboraldi honetan, prezio ofizialaren gaineko % 20 inguruko deskontua dauka, eta baliagarria izan daiteke kontzertuak unea iritsi ahala hautatu nahi dituzten musika klasikoaren zaleentzat. Halaber, talde txikiek deskontu handia izateko modua ere izan daiteke.

Hastear den denboraldirako, CrediBOSek 6 txartel izango ditu, eta kontzertu baterako edo gehiagorako erabili ahalko da.

CrediBOS txartela BOSen bulegoetan saltzen da bakarrik.

Denboraldi berriko datu nagusiak ikusleentzat

Denboraldiaren hasiera eta bukaera

Hasiera: 2020ko urriaren 1-2a

Bukaera: 2021eko ekainaren 3-4a

Denboraldi Sinfonikoaren datuak

17 egitarau

37 kontzertu

24 bakarlari eta zuzendari

Hasierako kontzertu 1, Anne Schwanewilmsekin (1.a)

Gabonetako egitarau 1 (7.a)

Egitarau sinfoniko-koral 1 (7.a)

Egitarau 1, Piazzollaren mendeurrenari eskainita (12.a)

Egitarau barroko 1 (16.a)

4 egitarau, Beethovenen jaiotzaren 250. urteurrenari eskainita
(1.a, 3.a, 4.a eta 6.a)

3 egitarau BOSeko bakarlariekin (2.a, 7.a, 14.a)

Amaierako kontzertu 1



Salmenten Egutegia 2020-2021

Abono berrien salmenta

Denboraldi osorako abonuak:
Ekainaren 29etik aurrera

Abonu laburrak
Irailaren 9etik aurrera

Sarreraren salmenta

Irailaren 16tik aurrera izango dira salgai kontzertuetarako sarrera solteak.

- www.bilbaorkestra.eus
- Euskaldunako txartel-leihatilak



Bestelako jarduerak 2020-2021

BOSen gainerako jardueraz gain (Kontzertu Didaktikoak eta Familiar programaren Denboraldia –dagokionean emango da horren berri–), BOSek zenbait konpromiso hartu ditu aldi honetarako:

2020ko ABUZTUA	Abuztuak 8	Donostiako Musika Hamabostaldia Kontzertuak Bizkaian. Gorliz
2020ko IRAILA	Irailak 17 Irailak 18 Irailak 20 Irailak 24	Grabazioa, Bilboko Korallarekin Azkuna Zentroaren urteurrena Kontzertuak Bizkaian. Santurtzi Kontzertuak Bizkaian. Getxo Musikagileak
2020ko URRIA	Urriak 24, 27, 30 eta azaroak 2	Il turco in Italia. OLBE
2020ko ABENDUA	Abenduak 23	Kontzertua, Bilboko Korallarekin
2021eko URTARRILA	Urtarrilak 23, 26, 29 eta otsailak 1	Samson et Dalila. OLBE
2021eko MARTXOA	Martxoaren 4tik 7ra	Musika-Música
2021eko MAIATZA	Maiatzak 22, 25, 28 eta 31	Tosca. OLBE
2021eko EKAINA		Kontzertua OLBErekin





Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

Palacio Euskalduna Jauregia
Abandoibarra etorbidea, 4 - 48011 Bilbao
T. 94 40 35 205
e-maila: abonados@bilbaorquestra.eus

